

# ZIGOR ARLOKO BIGARREN AUZIALDIRAKO ESKUBIDEA NAZIOARTEKO ARAUDIAREN ARGIPEAN. ESPAINIAKO EREDUAREN GABEZI ETA ERRONKAK

**Tesiaren egilea:** Goizeder Otazua Zabala

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia

**Tesi-zuzendaria:** José Francisco Etxeberria Guridi eta Maite Zelaia Garagarza

**Tesiaren laburpena:**

Espainiak nazioarte-mailan sinatutako bi itunen aurreikusten dute zigor-arloko bigarren auzialdirako oinarritzko eskubidea: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 7. Protokoloak. Horiei esker, jurisprudentziak Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan tokitu du eskubidea, benetako babes judizialaren baitan.

Aipatutako nazioarteko itunen betepenaz arduratzen diren organoetatik jasotako ez betetze erabakiei erreparatuz gero, baieztatu daitezke egungo Espainiako lege prozesalak araututako errekurso-sistemak ez dituela errespetatzen nazioarte-mailan estatuak bereganatutako betebeharrak. Arazo horren oinarrian arrazoi ezberdinak egon daitezke, hala nola nazioarteko jurisprudentziaren bereganatze okerra, auzitegien arteko elkarrizketa antzua, edota oinarritzko eskubidearen gaineko interpretazio ezberdinak.

Eztabaida horri helduz, ikerlanak hiru helburu nagusi ditu. Batetik, errekurtsorako eskubideak zigor-arloan izan duen ibilbidea aztertu da. Bestetik, nazioarte-mailan sinatutako hitzarmenetatik bereganatutako betebeharren ondorioz barne-zuzenbidean sortutako eztabaidak argitu dira. Eta azkenik, momentuko arauzko egoerari berrikuspena eginez, bigarren auzialdirako oinarritzko eskubide osoa bermatuko duen eredia proposatu da.

Ikerlanaren ondorioei helduz, argi dugu legegilearen ahaleginak ez direla nahiko izan eskubidearen egikaritzea osotasunean bermatzeko.

Tesiaren edukia honako esteka honetan dago eskuragarri:

<http://hdl.handle.net/10810/19277>